LITERAKTUM

# LITERAKTUM

2018

Hitzen hiria

La ciudad de las palabras

**Azaroa** / Noviembre

13-24

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia **kultura**

www.literaktum.eus

**PROGRAMA OROKORRA** / PROGRAMA GENERAL
6 - 17

**LIBURU LURRALDEA** / TERRITORIO LIBRO
18 - 23

**JARDUERA BEREZIAK** / ACTIVIDADES ESPECIALES
24 - 31

**ERAKUSKETAK** / EXPOSICIONES
32 - 37

**LITERAKTUM TXIKIA**
38 - 45

# LITERAKTUM 18

## **Literatur-mina**
## Cuando la vida duele

Literatura eta mundua etengabe ari dira eraldatzen eta Literaktumek bide berriak jorratu nahi ditu eremu aldakor horretan. Literaturak etengabeko elkarrizketan dihardueIa uste osoa du, gainera: bai bestelako lengoaia eta diziplina artistikoekin, bai eta garaiko eztabaidekin ere.

Literaktum 18 edizioaren gai nagusia gizakion funtsezko ezaugarri bat da, gaur egungo kulturan eta esperientzian oso presente dagoena: **mina**. Horrela, literaturak esperientzia mingarriei forma emateko duen gaitasuna aztertuko dugu, galeratik gatazka sozialera, bakardadetik indarkeriara. Era berean, esperientzia horiek kontatzerakoan literaturak duen botere katartikoaz eta askatzaileaz jabetuko gara. Literaturak gure labirintoa marrazten du, baina labirintoan barrena gidatzen gaituen haria ere bada.

La literatura y el mundo viven en permanente transformación y Literaktum quiere trazar caminos en ese territorio cambiante. Y lo hace guiado por la idea de que la literatura está siempre en diálogo: con otros lenguajes y disciplinas artísticas y con los debates de su tiempo.

El tema central de Literaktum 18 es un rasgo esencial de la condición humana que está muy presente en la cultura y la experiencia contemporáneas: **el dolor**. De la pérdida al conflicto social, de la soledad a la violencia, constataremos la capacidad de la literatura para dar forma a las experiencias dolorosas. Pero al mismo tiempo comprobaremos también su poder catártico y liberador al narrarnos esas experiencias. La literatura dibuja nuestro laberinto, pero es también el hilo que nos orienta en él.

**Belaunaldi berrien literatura** ere ardatz izango du aurtengo edizioak, 30 urtetik beherako idazleek egindakoa, hain zuzen ere. Euskarazko literatura berriaren ahots interesgarrienak bilduko dira mahai baten inguruan gai honi tiraka. Ikuspegi hau osatzeko, gazteak irakurtzera noiz eta nola hurbiltzen diren aztertuko du beste mahai-inguru batek.

**Literaktumek aurkezten du** atalean, aldiz, egungo euskal idazle esanguratsuenetako hiru argitaratu berri dituzten liburuez mintzatuko dira: Katixa Agirrek, Harkaitz Canok eta Iban Zalduak beren lan berriak aurkeztuko dituzte Literaktumeko ikus-entzuleen aurrean.

Jaialdi batek *orainaren* argazkia egiten du nolabait, baina **klasikoek** ere badute beren lekua orain horretan. Izan ere, klasiko bat ez al da garaikide iraunkor bat? Literaktum 18-k *Anna Karenina* hobeto ezagutzeko aukera emango du afari literario baten bidez; Baroja, ibilaldi dramatizatu batean parte hartuz; García Lorca, hark idatzitako *Sonetos del amor oscuro* olerkiak taularatuz, eta Roberto Bolaño Sonorako basamortuetan barrena egindako bidaia literario eta bisualaren bidez.

Otro de los ejes de esta edición será **la literatura que viene**, la escrita por autoras y autores menores de 30 años. Una mesa redonda reunirá a algunas de las voces más interesantes de la nueva literatura en euskera. Y para completar esta perspectiva, otro coloquio analizará la manera en que los y las jóvenes se acercan a la lectura.

En la sección **Literaktum presenta** tendremos la oportunidad de hablar en primicia con tres de los autores vascos más importantes acerca de sus recién publicados libros: Katixa Agirre, Harkaitz Cano e Iban Zaldua presentarán sus nuevas obras al público de Literaktum.

Un festival es una cierta foto del presente, pero en ese *ahora* siempre hay sitio para **los clásicos**. Porque, ¿qué otra cosa es un clásico sino un contemporáneo permanente? Literaktum 18 se acercará a *Anna Karenina* con una cena literaria; a Baroja con un paseo dramatizado; a García Lorca a través de una adaptación teatral de sus *Sonetos del amor oscuro*, y a Roberto Bolaño por medio de un viaje literario y visual por los desiertos de Sonora.

**Gaur egungo gizartean puri-purian diren eztabaidetan** murgiltzeko ateak ere zabalduko dizkigu literaturak: sorkuntzarako askatasunaren aurkako mehatxu berriak, idazketa boterearen kontrako erresistentzia gisa edo diskurtso kultural nagusiak sortzeko prozesuak.

Zinemak, musikak, erakusketek eta soinu-sorkuntzak osatuko dute taxututako proposamena, haurrentzako jarduerez betetako **Literaktum Txikia** programa ahantzi gabe. Erakunde eta kultur eragile anitzez osatutako **sarean elkarlanean** landutako proposamena da, betiere helburu komun bat ardatz hartuta: **hiri osoan barrena hedatzen den literatura festa**; edonork bere liburua, egilea edo jarduera topatu ahal izango duen lekua.

La literatura también será la puerta de entrada a algunos de **los debates más importantes de la sociedad contemporánea**: las nuevas amenazas para la libertad creativa, la escritura como forma de resistencia al poder o los procesos por los que se generan los discursos culturales dominantes.

Cine, música, exposiciones y creación sonora, sin olvidar el programa de actividades infantiles **Literaktum Txikia**, completan una propuesta diseñada **en colaboración con una amplia red** de instituciones y agentes culturales unidos por un objetivo común: **una fiesta de la literatura** que se despliega por toda la ciudad y en la que todos y todas pueden encontrar su libro, su autor o su actividad.



# **Programa orokorra**
# Programa general





13

**EZTABAIDAK I** / DEBATES I

## ***Las nuevas amenazas a la libertad creativa***

***Nacho Carretero & David Trueba***

Moderatzailea / Modera:
***Guillermo Altares***

**OKENDO KULTUR ETXEA**
**19:30 ES**

Sortzaileen askatasuna zentsura eta kontrolerako modu berriek mehatxatzen dutela dirudi azken urteotan: erreakzioak sare sozialetan, erabaki judizialak, autozentsura. Nacho Carreteroren *Fariña* liburuak lau hilabetez jasan duen bahiketak oihartzun handia izan du. Berriki *La tiranía sin tiranos* liburua kaleratu duen David Truebarekin solasean ariko da egilea.

La libertad de los creadores parece enfrentarse a nuevas formas de censura y control en los últimos años: reacciones en las redes, decisiones judiciales, autocensura. Un caso de gran repercusión ha sido el secuestro del libro *Fariña*, de Nacho Carretero, durante cuatro meses. El autor conversará con David Trueba, que ha publicado recientemente *La tiranía sin tiranos.*

## 14

**MINAK BIZI I** / LA VIDA DUELE I

### *La memoria de la lavanda*

***Reyes Monforte***

Elkarrizketatzailea / Entrevista:
***Alicia San Juan***

**TOMASENE KULTUR ETXEA**
**19:30 ES**

*La memoria de la lavanda* eleberria aurkeztuko du Reyes Monfortek. Doluaren azterketa literario zorrotza ez ezik, maitasuna eta itxaropena ardatz dituen istorio hunkigarria jasotzen du nobela honek. Esperientzia pertsonala abiapuntutzat hartuta, fikziozko kontakizun sakona eta hunkigarria kontatu du kazetariak.

Reyes Monforte presenta su última novela, *La memoria de la lavanda,* una auténtica disección literaria del duelo a la vez que una emotiva historia sobre el amor y la esperanza. La periodista parte de su propia experiencia personal para narrar una historia de ficción profunda y emotiva.



## 15

**MINAK BIZI II** / LA VIDA DUELE II

### *La impunidad del monstruo*

***Laura Restrepo***

Elkarrizketatzailea / Entrevista:
***Carmen Bachiller***

**SAN TELMO MUSEOA**
**19:30 ES**

*Los divinos* azken eleberrian, Laura Restrepok Kolonbiaren erretratu gogorra erakusten du, 2016an Kolonbia osoa astindu zuen kasuan oinarrituta. Bogotako eliteko gazte batek 7 urteko neskatila bahitu, bortxatu eta hil egin zuen orduan. Inpunitatez betetako indarkeria giroa, sarritan botereak babestutakoa eta emakumeak eta ahulenak biktimatzat izan ohi dituena.

En su última novela, *Los divinos*, Laura Restrepo ofrece un duro retrato de Colombia a partir de un caso que conmocionó al país en 2016: el secuestro, violación y asesinato de una niña de 7 años a manos de un joven de la élite de Bogotá. Una atmósfera de violencia impune, amparada a menudo por el poder y en la que las mujeres y los más débiles son las víctimas más frecuentes.

Babeslea / Patrocina:
***Donostiako Udaleko Lankidetza bulegoa***

## 16

# AFONIAK

***Xabier Erkizia, Arantxa Iturbe, Luca Rullo***

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**
**KLUB ARETOA** / SALA CLUB
**19:00 EU**

Dedikatutako sinaduren ondotik, ahotsa da idazle bati serio eskatzen zaion gauza bakanetakoa. Hain zuzen ere, ahots horiek, zenbait euskal idazleren ahotsak, baliatu eta bihurritu ditu Xabier Erkiziak sekula entzun gabeko irratsaioa osatzeko. *Idazlezainak* egitasmoak, liburuzainen lanari esker, bildutako euskal idazleen informazioa eta ahotsak ditu oinarri emanaldi esperimental honek.

Además de las consabidas firmas con dedicatoria, la voz suele ser lo único serio que se le pide a un escritor o escritora. Xabier Erkizia ha transformado dichas voces, voces de escritores y escritoras vascos, para montar un programa de radio inaudito. El punto de partida de esta sesión experimental es el proyecto *Idazlezainak*, que ha reunido información y voces de escritores y escritoras vascos mediante el trabajo del personal de bibliotecas.

Kolaboratzailea / Colabora:
***EKE – Euskal Kultur Erakundea***

** Gonbidapenak antzokiko leihatilan banatuko dira 17:00etatik aurrera / Las invitaciones se recogerán en la taquilla del teatro a partir de las 17:00 horas*





©Dani Blanco

## 18

**KLASIKOAK II** / CLÁSICOS II

## *Amor oscuro (Sonetos)*

***Viridiana***

**LUGARITZ KULTUR ETXEA**
**IMANOL LARZABAL ARETOA**
**19:30 ES**

*Sarrera / Entrada: 6 euro*
*Plaza mugatuak / Plazas limitadas*

*Sonetos del amor oscuro* lana eskainiko du Viridiana antzerki konpainiak; desagertutako poeta baten, Federico García Lorcaren, olerki desagertuen istorioa da. Hamaika pertsonaiek josten dute istorioa; hamaika pertsonaien, hamaika sonetoren eta istorio baten topaketa da. Hamaika poema eta bizitza bat Javier García Ortega aktoreak antzeztuta.

La compañía teatral Viridiana presenta *Sonetos del amor oscuro,* la historia de los versos desaparecidos de un poeta desaparecido, Federico García Lorca. Se trata de una historia a través de once personajes, un encuentro a través de once protagonistas, once sonetos y una historia. Once poemas y una vida interpretados por Javier García Ortega.

## 19

**LITERATURAREN BIDE BERRIAK I**

## *Zergatik idazleak?*

***Estibaliz Martínez Díaz de Cerio, Peru Iparragirre***

Moderatzailea / Modera:
***Samara Velte***

**LIBURUTEGI NAGUSIA –** San Jeronimo aretoa
**19:30 EU**

Idazle gazteen gaur egungo kezkak, helburuak, idazketa-estiloak eta beste hamaika gai izango dituzte hizpide Estibaliz Martinez eta Peru Iparragirre idazle gazteek solasaldi honetan. Samara Velte kazetariak gidatuko du saioa.

Los jóvenes escritores Estibaliz Martínez y Peru Iparragirre hablarán sobre las dudas, objetivos, estilos de escritura y otros muchos temas que surgen a los jóvenes escritores hoy en día. La periodista Samara Velte se encargará de dinamizar esta tertulia.



## 20

**LITERATURAREN BIDE BERRIAK II**

### *Gazteak eta irakurketa*

***Maialen Berasategi, Imanol Epelde, Larraitz Idarreta***

Moderatzailea / Modera:
***Uxue Alberdi***

**LIBURUTEGI NAGUSIA –** San Jeronimo aretoa
**19:30 EU**

Nola zaletu gazteak irakurtzera? Ez da gai berria, baina gaurkotasuna gordetzen du oraindik ere, eta irakasle, liburuzain zein guraso askoren erronka da. Galdera honen inguruan Uxue Alberdi idazlearekin batera hausnarketa egingo dute hiru solaskidek: Imanol Epelde irakasle eta blogaria, Maialen Berasategi kazetaria eta Larraitz Idarreta liburuzaina.

¿Cómo atraer a la juventud a la lectura? No es un tema novedoso, pero sigue siendo de actualidad, y se convierte en un reto para muchos/as profesores, bibliotecarios y padres y madres. Tres contertulios reflexionarán sobre este tema guiados por la escritora Uxue Alberdi: el profesor y bloguero Imanol Epelde, la periodista Maialen Berasategi y la bibliotecaria Larraitz Idarreta.

## 20

**MINAK BIZI IV** / LA VIDA DUELE IV

### *El silencio y los crujidos. Tríptico de la soledad*

***Jon Bilbao & Pilar Adón***

**TROA ZUBIETA LIBURU-DENDA –**
Reyes Católicos, 8
**19:30 ES**

*Bajo el influjo del cometa* edo *Estrómboli* eleberrien egile, Jon Bilbao gaur egungo ipuin kontalari interesgarri eta saritu nagusietako bat da Espainian. *El silencio y los crujidos* ipuin liburua argitaratu berri du: bakardadearen inguruko hainbat esperientzia lantzen ditu hiru ipuinen bidez, eremita bat, biologo bat eta asmatzaile bat protagonistatzat hartuta. Pilar Adón idazlearekin solasean ariko da Bilbao.

Con libros como *Bajo el influjo del cometa* o *Estrómboli,* Jon Bilbao es, sin duda, uno de los cuentistas españoles más interesantes y premiados de la actualidad. *El silencio y los crujidos* es su nuevo libro de relatos; tres cuentos en los que aborda otras tantas experiencias de la soledad, a partir de un eremita, un biólogo y un inventor. Bilbao dialogará con la también escritora Pilar Adón.

Kolaboratzailea / Colabora:
***Impedimenta***

**21**

**MINAK BIZI V** / LA VIDA DUELE V

## *Asuntos de familia*

***Manuel Vilas & Juan José Millás***

Moderatzailea / Modera:
***Jesús Ruiz Mantilla***

**TABAKALERA –** Kutxa Kultur plaza
**19:30 ES**

Literaturaren gai emankor eta indartsuenetako bat unibertso familiarra da, bai biltzen dituen emozioengatik bai narraziorako eskaintzen dituen aukerengatik. *Ordesa* eleberrian, gurasoen gabezia oinarri hartuta, oroimen pertsonala eta kolektiboa arakatu ditu Manuel Vilasek. Aurten *Nadie duerma* eleberria argitaratu duen Juan José Millásek, era berean, sakon eta zorrotz ikertu ohi ditu mikromundu familiarrak.

El universo familiar es uno de los materiales más productivos y potentes de la literatura, por su condensación emocional y sus posibilidades narrativas. En *Ordesa*, Manuel Vilas explora una memoria personal y colectiva a partir de la ausencia de sus padres. Juan José Millás, que ha publicado este año *Nadie duerma,* es también un penetrante y sutil indagador de los microcosmos familiares.

Babeslea / Patrocina:
***Kutxa Kultur***





©Columna Villarroya

**22**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU II**
LITERAKTUM PRESENTA II

## *Fakirraren ahotsa*

***Harkaitz Cano***

Elkarrizketatzailea / Entrevista:
***Leire Palacios***

Irakurketak / Lecturas:
***Isidoro Fernández***

**LUGARITZ KULTUR ETXEA**
**19:30 EU**

Harkaitz Canok Imanol Larzabal bihurtu du bere azken nobelaren protagonista, fikziozko nobela hau 1960ko hamarkadatik ia gaurdainora artean datatuz. Politikaz harago, kantari baten ibilbidea kontatzen du: ahots zoragarri bat izateak ekar ditzakeen onurak eta nola kantari bat bihur daitekeen ahots horren mirabe. Isidoro Fernández aktoreak nobelaren zenbait pasarte irakurriko ditu, solasaldian tartekatuta.



Imanol Larzabal es la figura protagonista de la última novela de Harkaitz Cano, que abarca desde los años 60 hasta la actualidad. Más allá de la política, nos cuenta el recorrido de un cantante: las ventajas que conlleva el poseer una voz maravillosa y cómo alguien puede convertirse en servidor de dicha voz. El actor Isidoro Fernández leerá diversos pasajes del libro durante la charla.

Kolaboratzailea / Colabora:
***Susa argitaletxea***

**MINAK BIZI VII** / LA VIDA DUELE VII

## La favorita de... Edurne Portela

***Das Weisse Band*** *(La cinta blanca),* ***145'***

**TABAKALERA –** 1 zinema aretoa / Sala de cine 1
**20:00 ES**

*Sarrera / Entrada :* ***3,5 euro***
*Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin / Versión original, subtitulada al castellano*

Euskadiko Filmategiaren programetako bat da *...-ren gustukoena*, eta saio honetan, Edurne Portela idazleak hautatutako Michael Hanekeren *Das Weisse Band* filma eskainiko da.

I. Mundu Gerraren bezperan, gertaera bitxiak jazoko dira Alemania iparreko herrixka protestante batean, eta pixkanaka, zigor erritual bilakatuko dira. Irakasleak



zuzentzen dituen elizako eta eskolako abesbatzetako haurrek eta nerabeek, haien familiek, baroiak, arduradunak, medikuak, emaginak eta baserritarrek osatzen dute I. Mundu Gerraren bezperan nazismoaren jatorriaz gogoeta egiten duen istorio hau.

*La favorita de...* es un programa de la Filmoteca Vasca. En este caso, es la escritora Edurne Portela quien ha seleccionado su película favorita. *Das Weisse Band,* de Michael Haneke.

En 1913, vísperas de la 1ª Guerra Mundial, extraños acontecimientos, que poco a poco toman carácter de castigo ritual, se suceden en un pequeño pueblo protestante del norte de Alemania. Los niños y adolescentes del coro del colegio y de la iglesia dirigido por el maestro, sus familias, el barón, el encargado, el médico, la comadrona y los granjeros conforman una historia que reflexiona sobre los orígenes del nazismo en vísperas de la 1ª Guerra Mundial.

Babeslea / Patrocina:
***Euskadiko Filmategia / Filmoteca Vasca***





**23**

**EZTABAIDAK III** / DEBATES III

## *La escritura vigilada: literatura e historia en Europa*

***Slavenka Drakulić & Luisa Etxenike***

Moderatzailea / Modera:
***Berta Ares***

**KOLDO MITXELENA KULTURUNEA**
**19:00 EN**

*Itzulpena euskaraz eta gaztelaniaz / Traducción a euskera y castellano*

Literatura basakeriaren kontrako erresistentzia modua ere bada, eta horregatik, hain zuzen, boterеak gertutik zaintzen du, bai eta desaktibatzen saiatu ere. Zelatatutako idazketaren adibide garbiak dira diktadurak zein gatazka egoerak. Slavenka Drakulić, Balkanetako gerraren eta komunismopeko bizitzaren kronista bikaina, Luisa Etxenike idazle eta saiakera egilearekin mintzatuko da Europa garaikideko literatura eta historiaren arteko harremanez.

La literatura es también una forma de resistencia ante la barbarie, y por eso mismo, el poder la somete a su vigilancia o incluso busca su desactivación. Las dictaduras o las situaciones de conflicto son buena muestra de esta escritura vigilada. Slavenca Drakulić, la gran cronista de la guerra de los Balcanes y de la vida cotidiana bajo el comunismo, conversará con la novelista y ensayista Luisa Etxenike sobre estas relaciones entre literatura e historia en la Europa contemporánea.

**24**

# MARTUTENEKO KARTZELAN

***Bernardo Atxaga & Jose Kruz Gurrutxaga***

LOIOLA KULTUR ETXEA
**20:00 EU**

Duela zenbait urte, Bernardo Atxaga idazleak euskal literatura zaharrari buruzko hitzaldia eman zuen Martuteneko kartzelan. Ekitaldi hura gogoan, irakurraldi dramatizatu bat prestatu du, orduan izandako bizipenak kontuan hartuz. Agertokian, Jose Kruz Gurrutxaga aktorearen laguntza izango du.

Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren harira sortutako emanaldia da eta, erakundeko urteurren ospakizunetan aurkeztu ondoren, estreinakoz egongo da ikusgai Donostian.

Hace algunos años, el escritor Bernardo Atxaga ofreció una charla sobre la literatura clásica vasca en la cárcel de Martutene. Retomando aquel acto, ha preparado una lectura dramatizada basándose en las vivencias que tuvo en aquel momento. El actor Jose Kruz Gurrutxaga le acompañará en el escenario.

Se trata de un espectáculo creado a raíz del centenario de Euskaltzaindia y, tras presentarse en los actos de conmemoración del aniversario, se estrenará por primera vez en Donostia.

Laguntzailea / Colabora:
***Euskaltzaindia***







# **Liburu lurraldea**
# Territorio libro

**14**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU I**
LITERAKTUM PRESENTA I

## *Amek ez dute idazten*

***Katixa Agirre***

Elkarrizketatzailea / Entrevista:
***Eider Rodríguez***

**ELKAR ARETOA –** Fermin Calbeton, 21
**19:00 EU**



Amatasunaren eta arte-sorkuntzaren arteko harremanaz gogoeta egiten du idazle gasteiztarrak bere azken eleberrian, hari detektibesko baten bidez: emakume gazte batek bere haur txikia hiltzen du, ageriko arrazoirik gabe, eta kasu horrek jakin-mina eta obsesioa sortuko dizkio ama eta idazle den protagonistari.

La escritora vitoriana reflexiona sobre la relación de la maternidad y la creación artística en su última novela, mediante un hilo detectivesco: una mujer joven mata a su bebé, sin aparente razón, y ese caso le creará curiosidad y obsesión a la protagonista, también madre, además de escritora.

Kolaboratzailea / Colabora:
***Elkar argitaletxea***

**17**

**EZTABAIDAK II** / DEBATES II

## *¿Quién hace la cultura? Injusticias epistémicas*

***Danele Sarriugarte & Fernando Broncano***

Moderatzailea / Modera:
***Antonio Casado da Rocha***

**KAXILDA LIBURU-DENDA –** Arroka kalea 2
**12:00 EU / ES**

Luxua izatetik industria izatera igaro da kultura, eta identitate berriak, bizimodu berriak sortu dira trantsizio horretan, baina baita elkarri min emateko era berriak ere. Kulturan dagoen egonezina oinaze modu bat ere bada. Nork erabakitzen du zer den eta zer ez den kultura? Erakundeek, hiriburuetako kultura eliteek, kapitalaren nazioarteko fluxuek? Danele Sarriugarte idazleak eta Fernando Broncano irakasleak, kulturaren kritikan murgilduta daudenak, gai horiek aztertuko dituzte euskaraz zein gaztelaniaz.

La cultura ha pasado de ser un lujo a una industria, y en ese tránsito surgen nuevas identidades, nuevas formas de vida, pero también nuevas maneras de hacernos daño. El malestar en la cultura es también una forma de dolor. ¿Quién decide qué es y no es cultura? ¿Las instituciones, la élite cultural de las capitales, los flujos internacionales del capital? La escritora Danele Sarriugarte y el profesor Fernando Broncano, ambos inmersos en la crítica de la cultura, explorarán estas cuestiones en euskera y en castellano.

** **Pentsatu! Jaialdiak sustatutako ekitaldia, EHUkultura eta UPV/EHUko Gipuzkoako Campusarekin elkarlanean.** / Actividad promovida por el festival Pentsatu! con la colaboración de EHUkultura y el Campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU.*





**22**

**MINAK BIZI VI** / LA VIDA DUELE VI

## ***Han ez banengo bezala***

***Slavenka Drakulić***

**KAXILDA LIBURU-DENDA –** Arroka kalea 2

**18:00 EU**

Pasazaite argitaletxeak Slavenka Drakulićen *As if I am not there* maisulanaren euskarazko itzulpena aurkeztuko du, egilea bertan dela. Nobela gordin honetan, Drakulićek emakume bosniar baten esperientzia traumatikoaren gainean hausnarketa egiten du, Yugoslaviako gerran. Izugarrikeriaren erretratu lazgarria.

La editorial Pasazaite presentará la traducción al euskera de la obra maestra *As if I am not there,* de la escritora Slavenka Drakulić y contará con la presencia de la misma. Se trata de una novela cruda en la que Drakulić reflexiona sobre la experiencia traumática de una mujer bosnia en la guerra de Yugoslavia. El retrato estremecedor de una atrocidad.



Kolaboratzaileak / Colaboran:

***Pasazaite argitaletxea, Kaxilda liburu-denda***

**24**

**LITERAKTUMEK AURKEZTEN DU III**
LITERAKTUM PRESENTA III

## ***Como si todo hubiera pasado***

***Iban Zaldua &***
***Ramon Saizarbitoria***

**TROA ZUBIETA LIBURU-DENDA**
Reyes Católicos, 8
**18:30 ES**





Iban Zaldua idazlearen *Como si todo hubiera pasado* ipuin-bilduma aurkeztuko dute Ramon Saizarbitoriak eta egileak berak, eta euskal gatazka delakoari buruzko fikzio literarioaz mintzatuko dira. Berez, liburuak biltzen dituen ipuinetako asko Iban Zalduak gai horri buruz azken hogei urteotan idatzitakoak dira, horietako asko gaztelaniaz argitaratu gabeak, gainera.

Los escritores Ramon Saizarbitoria e Iban Zaldua presentarán la colección de relatos de este último autor *Como si todo hubiera pasado* y mantendrán una conversación en torno a la ficción literaria del llamado conflicto vasco. De hecho, el volumen recopila gran parte de los cuentos que durante estos últimos veinte años ha escrito sobre el tema Iban Zaldua, muchos de los cuales estaban inéditos en castellano.

Kolaboratzailea / Colabora:
***Troa Zubieta liburu-denda***



# **Jarduera bereziak**
# Actividades especiales

# LITERAKTUM & KOMIKILABEA

Literaktumek bat egingo du Komikilabea jardunaldiekin, jaialdiaren hitzaurre gisa.

Literaktum se une a las jornadas sobre cómic Komikilabea con esta actividad a modo de prólogo del festival.

**12**

**KLASIKOAK I** / CLÁSICOS I

## *Los desiertos de Sonora. Un viaje literario al universo de Roberto Bolaño*

***Paty Godoy, Pere Ortín, Rodrigo Fresán***

Moderatzailea / Modera:
***Ander Izagirre***

**KOMIKIGUNEA –** Reyes Católicos, 16
**19:30 ES**

*Los desiertos de Sonora* Altaïr Magazine aldizkariaren ekoizpena da, eta bidaia literario eta sentimentala osatzen du Mexikoko ipar-mendebaldean barrena. Roberto Bolañoren *Los detectives salvajes* lanaren eskutik, lurralde liluragarri eta muturrekoaren misterioak eta irudiak deskubritzea du xede bidaia honek. Bidaiaren eta bere kulturen ikuspegi imaginario zein bisualaz hausnarketa egiten du, eta Roberto Bolañoren unibertso literario berezia Mexikoko basamortuetan nola eraiki daitekeen (bir)pentsatzeko proposamena da.

*Los desiertos de Sonora* es una producción transmedia de Altaïr Magazine que traza un viaje literario y sentimental por los caminos del noroeste de México para descubrir los enigmas y las imágenes de un territorio fascinante y extremo de la mano de *Los detectives salvajes* de Roberto Bolaño. Se trata de una reflexión sobre la dimensión imaginaria y visual del viaje y sus culturas, y una propuesta para (re)pensar cómo se construye un universo literario tan particular como el de Roberto Bolaño en los desiertos de México.

Kolaboratzailea / Colabora:
***Altaïr Magazine***

# FILOSOFIA ZUZENEAN



## 17

**MINAK BIZI III** / LA VIDA DUELE III

### *Mikro-eztabaidak*

***Barbara Jiménez & Iñigo Galzakorta***

***Ainhoa Urien & Beñat Sarasola***

***Maddi Nazabal & Agustin Arrieta***

Aurkezlea eta moderatzailea / Presenta y modera:
***Ekai Txapartegi***

**TABAKALERA –** Kutxa Kultur plaza
**19:00 EU**

Filosofia kale eta plazetatik aldendu dela esan ohi da. Galdera filosofikoek, hala ere, interesa pizten dute askorengan. Hori frogatzeko, sei filosofok gaur egungo zenbait gairi buruzko argudio kontrajarriak azalduko dituzte, labur eta zuzen, hiru eztabaidatan: *Teknologia, ezkortasuna eta baikortasuna*; *Adierazpen askatasuna eta gorroto delituak*, eta *Filosofia, poesia eta mina*.

Se dice que la filosofía se ha apartado de la calle y la plaza. Pero las preguntas filosóficas siguen interesando a muchas personas. Para mostrarlo, asistiremos a tres debates en los que, de manera breve y directa, seis filósofos presentarán argumentos contrapuestos sobre tres cuestiones de actualidad: *Tecnología, pesimismo y optimismo; La libertad de expresión y los delitos de odio,* y *Filosofía, poesía y dolor.*

** Pentsatu! Jaialdiak sustatutako ekitaldia, EHUkultura eta UPV/EHUko Gipuzkoako Campusarekin elkarlanean. / Actividad promovida por el festival Pentsatu! con la colaboración de EHUkultura y el Campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU.*

# LITERAKTUM WIKILANTEGIA
# WIKITALLER LITERAKTUM

**21**

## Haur Liburutegia
Biblioteca Infantil

**FERMIN CALBETON, 25**
**17:30 - 19:30**

Literaktumera etorriko diren idazleak Wikipedian sartzeko lantegia antolatuko da: biografien eta idazlanen artikuluak sortu, hobetu eta gaurkotu. Nahi baduzu ikasi nola egiten den, zatoz Wikilantegira!

Un taller para poner en Wikipedia a todos/as los escritores que nos visitarán en Literaktum: crear, mejorar y actualizar artículos sobre biografias y obras. Si quieres aprender cómo se hace iven al Wikitaller!

Izen-ematea / Inscripción:
***kulturekintza@donostia.eus***

Kolaboratzailea / Colabora:
***Euskal Wikilarien Kultura Elkartea***

# CENAR CON ANNA KARENINA

**KLASIKOAK III** / CLÁSICOS III

**Literatur solasaldia** /
Tertulia literaria

***Anna Karenina, Leon Tolstoi***

Dinamizatzailea / Dinamizadora:
***Slawka Grabowska***

**CONVENT GARDEN –** Easo kalea 20
**19:30 ES**



**23**

## *Cenar con Anna Karenina*

Dinamizatzailea / Dinamizadora:
***Slawka Grabowska***

**CONVENT GARDEN –** Easo kalea 20
**21:00 ES**

*Prezioa / precio: 25 €*
*(plaza mugatuak / plazas limitadas)*

*Anna Karenina* klasikoak ez du galdu belaunaldiz belaunaldi liluratzeko gaitasuna. Kasu honetan, beste ikuspuntu batetik begiratuko diogu León Tolstoiren maisulanari: liburuan ageri diren plateretan oinarritutako afarian, hain zuzen. Ba al da liburu bati buruz hitz egiteko modu hoberik? Tolstoiren garaia eta ohitura sozialak ezagutzeko aukera izango da, Slawka Grabowskaren eskutik.

*Anna Karenina* es un clásico que mantiene intacta su capacidad de seducción de generación en generación. En este caso, abordaremos la obra maestra de León Tolstói desde otra perspectiva con una cena inspirada en los platos que aparecen en sus páginas. ¿Qué mejor manera de hablar de un libro? Tendremos la ocasión de conocer un poco más la época en la que vivió Tolstói , de la mano de Slawka Grabowska.

** Afarian izena eman eta ordainketa www. literaktum.eus webgunean egingo da azaroaren 16ra arte / La inscripción y abono de la cena se realizará en la página web www.literaktum.eus hasta el 16 de noviembre. Harremanetarako / Contacto: liburutegiaalderdieder@donostia.eus*

Kolaboratzailea / Colabora:
***Convent Garden***

# PIO BAROJA DONOSTIARA BISITAN

**24**

**KLASIKOAK IV** / CLÁSICOS IV

## *Ibilbide literarioa*

***Aktoreak: Joxemari Karrere, Anartz Zuazua, Tanya de la Cruz***

**IRTEERA: OKENDO PLAZA,**
**PIO BAROJAREN ESKULTURA ONDOAN**

**11:00 EU**

Shanti Donostiako Udaleko langilea izateaz gain, Barojazale amorratua da. Idazle donostiarra ahaztu dugunaren aitzakian, gaur egunera etortzera gonbidatuko du. Bere garaian ibilitako lekuak bisitatuko ditu On Piok, zaintzaile latinoamerikar baten laguntzaz, eta Donostiarekin izandako lotura azalduko digu umore zorrotzez. Okendo plazan hasi eta Parte Zaharrean amaituko da Pio Barojari buruzko ibilbide hau.

Además de trabajador del Ayuntamiento donostiarra, Shanti es un gran seguidor de Baroja. Opina que se ha dejado en el olvido al escritor donostiarra, y le invitará a la vida actual. Así, ayudado por una cuidadora latinoamericana, Don Pío visitará lugares que visitaba en otras épocas, y nos mostrará su relación con Donostia antes y ahora, con su característico humor fino. El recorrido comenzará en la plaza Okendo y finalizará en la Parte Vieja.

Aurretik izena eman behar da / Inscripción previa:
***liburutegiaalderdieder@donostia.eus***

# LITERAKTUM ETA LIBURU-DENDAK



**24**

## Jaialdi osoan zehar
Durante todo el festival

Literaktumen eta Gipuzkoako Liburu-denden Elkartearen arteko harremana urte osoan zehar luzatzen da, eta aurtengo jaialdian ere oso presente izango dira liburu-dendak. Herritarrek liburuekiko eta literaturarekiko maitasuna sustatze aldera, Literaktumeko zenbait emanalditan liburuak eta erosketa-bonoak zozkatuko dira bertara hurbiltzen diren guztien artean. Irakurtzea gustuko baduzu... parte hartu!

Durante todo el año, la relación entre Literaktum y el Gremio de Libreros de Gipuzkoa es fluida y cercana, por lo que las librerías estarán muy presentes en el mismo festival. Para fomentar el amor hacia los libros y hacia la literatura, se sortearán libros y bonos de compra entre las personas asistentes en varias de las actividades programadas en Literaktum. Si te gusta leer... ¡participa!

Liburu-denda parte-hartzaileak / Librerías participantes:
***Aritz, Casa del Libro, Donosti, Elkar, Garazi, Gurutz, Hontza, Kaxilda, Lagun, Tobacco Days***

Babeslea / Patrocina:
***Gipuzkoako Liburu-denden Elkartea***


POTOSI



# **Erakusketak**
# Exposiciones

# PADDINGTON IZENEKO HARTZA
## UN OSO LLAMADO PADDINGTON

Michael Bondek idatzitako *Paddington Hartza* obra haur literatura ingelesaren klasikoetako bat da.Orain 60 urte, Perutik iritsitako hartz batek Brown sendia ezagutu zuen Paddingtoneko geltokian. Orduz geroztik, Brown familiaren bizitza aldatu egin da... izan ere, Paddington haien etxean bizi delarik, eguneroko gertaera arruntenak aparteko bilakatuko dira.

*A Bear Called Paddington* liburua 1958an argitaratu zen estreinakoz, Peggy Fortnumen ilustrazioez lagunduta. Hain zuzen ere, ilustrazio horiek ikusgai izango dira Aieteko erakusketan, bai eta Londresko Paddington inguruko beste hainbat elementu ere.

*Un oso llamado Paddington,* escrito por Michael Bond, es un icono clásico de la literatura infantil inglesa. Hace 60 años, un oso, recién llegado de Perú, conoció a la familia Brown en la estación de Paddington. Desde entonces, la vida de los Brown ya no ha sido la misma... puesto que las situaciones más cotidianas se convierten en algo extraordinario cuando un oso llamado Paddington se instala en la casa.

El libro *A Bear Called Paddington* se publicó por primera vez en 1958, ilustrado por Peggy Fortnum. En la exposición del centro cultural Aiete se mostrarán dichas ilustraciones, junto con otros elementos del mundo londinense de Paddington.

### ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

**AIETE KULTUR ETXEA**

**Azaroaren 9tik otsailaren 3ra**

**Del 9 de noviembre al 3 de febrero**

Asteartetik ostiralera / De martes a viernes
**16:00-20:30**

(Gabonetan / Navidad 10:00-14:00).

Larunbatetan / Sábados:
**10:00-14:00 / 16:30-20:00**

Igandeetan / Domingos:
**10:00 – 14:00**

Astelehen eta jaiegunetan itxita / Lunes y festivos cerrado




PLEASE LOOK AFTER THIS BEAR

# EUSKADI LITERATURA SARIAK

2017ko Euskadi Literatur Sarien berri jasotzen du erakusketa honek. Sarituak izan ziren liburuen azalak ez ezik, horien idazleen biografiak zein liburuaren nondik norakoak jasotzen dira 7 paneletan. Asier Serrano, Fernando Aramburu, Leire Bilbao, Matías Múgica, Mikel Valverde, Arantxa Urretabizkaia eta Ander Izagirreren sortzaileen kezkak, ikuspegi anitzak eta talentua islatzen dituzte.

Esta exposición recoge los Premios Euskadi Literatura de 2017. Se han habilitado 7 paneles que además de las portadas de los libros ganadores, nos muestran información sobre los/as autores y otros detalles del libro. La exposición es el reflejo de las inquietudes, diversidad de puntos de vista y talento de Asier Serrano, Fernando Aramburu, Leire Bilbao, Matías Múgica, Mikel Valverde, Arantxa Urretabizkaia eta Ander Izagirre.

## ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

**OKENDO KULTUR ETXEA**
Liburutegiko sarrera

**Azaroaren 2tik 30era**

Kolaboratzaileak / Colaboran:
***Euskal Idazleen Elkartea, Eusko Jaurlaritza***


Asier Serrano
Linbotarrak
Fernando Aramburu
PATRIA
François
VILLON
Bidean ikasia
POTOSI
DEPORTES


LITERAKTUM
Txikia

**Azaroa** / Noviembre

# LITERAKTUM *Txikia*



16

## IPUINAK DANTZAN

***Gitarra elektrikoa eta ipuin kontaketa***

***Ana Apika & Intxixu Valbuena***

**LOIOLA KULTUR ETXEA –** Areto Nagusia

**18:00 EU**

*+ 4 urte / años*

Ipuin poetikoak musikaz lagunduta. Ipuin musikatuen saio honetan, hitzek eta notek elkarrekin egingo dute dantza. Intxixu Valbuena musikariak gitarra elektrikoa jo eta hainbat kantu abestuko ditu, eta Ana Apika kontalariak, berriz, musikaz lagundutako istorioak kontatuko ditu. Lasai egoteko, eta aldi berean, ondo pasatzeko saio dibertigarria haur eta familientzat.

Se trata de una sesión donde la música y las palabras se acompañan, se ceden turno, se divierten y danzan juntas. Cantaremos algunos temas de actualidad y otros de siempre, acompañados de la guitarra de Intxixu Valbuena, y Ana Apika narrará bellas historias con acompañamiento musical. Un sesión especial con humor para niños y niñas, y sus acompañantes.



17

## ARETO LITERARIOA

***Itsaspeko bihotzak***

Ideia eta sorrera / Idea y creación:
***Miren Guillo, Mireia Delgado***

Diseinua, artisau lanak, ilustrazioak / Diseño, trabajo artesanal, ilustraciones:
***Aitziber Alonso***

Ilustrazioak / Ilustraciones:
***Eider Eibar, Elena Odriozola***

**MANDASKO DUKEA ARETOA –**
Konstituzio plaza 1, 2. solairua

**11:00 - 12:30 EU**

*Familientzako saioa, 6-8 urte bitarteko haurrak heldu batekin / Sesión familiar, para niños y niños entre 6-8 años y un acompañante adulto*

Genero berdintasunaren gaia landuko da haur literaturaren bitartez. Horretarako, ibilbide pedagogiko-artistiko bat eskainiko da. Eszenografia batean murgilduta, musika, ikus-entzunezkoak, ilustrazioa, genero berdintasuna eta pedagogia bera uztartuko dira. Espazio bakoitzean hainbat liburu egongo badira ere, aretoaren amaieran, bibliografia zabal bat izango dute haurrek, tarte batean lasai goxatzeko.





En este recorrido se tratará la igualdad de género mediante la literatura infantil. La música, audiovisuales, la igualdad de género y la pedagogía confluirán en una escenografía. Varios libros estarán disponibles en cada espacio, y al final de recorrido, los y las niños tendrán ocasión de disfrutar sosegadamente de una extensa bibliografía.

Antolatzailea / Organiza:
***Galtzagorri Elkartea***

Izen-ematea / Inscripción:
**haurliburutegia@donostia.eus**
**943 481999**



**17**

## HAUR ANTZERKIA
### *Txitxarra eta inurria*

***Markeliñe***

**AIETE KULTUR ETXEA –** Areto Nagusia
**17:00 EU** 60 min

*+ 5 urte / años*

Entretenitu, liluratu eta hunkitzeaz gain, antzezlan honen bidez zenbait pertsonaiak batak bestearengandik ikasten dituzten harreman motak erakutsiko dizkigute. Iparraldeari eta hegoaldeari buruzko hausnarketa da, bai eta arteari eta lanari buruzkoa ere.

Una obra que además de entretener, seducir y emocionar, nos muestra las diferentes relaciones que varios personajes van descubriendo entre ellos y ellas. Se trata de una reflexión sobre el norte y el sur, y también sobre el arte y la obra.

*Sarrerak doan banatuko dira Kultur Etxean bertan, egun berean 16:30ean, edukiera bete arte / Entradas gratuitas el mismo día en el centro cultural a partir de las 16:30, hasta completar aforo.*

20

# HAUR ANTZERKIA

***Galtzagorriak***

***Txotxongillo taldea***

**AIETE KULTUR ETXEA –** Areto Nagusia
**17:00 EU**

*+ 4 urte / años*

Euskal mitologiako pertsonaietan oinarritzen da ipuin hau: Galtzagorrietan, hain zuzen. Txiki-txikiak dira eta nagusiak agindutakoa betetzen dute. Horregatik, Peru alperra pozik zegoen hasieran, baina gero... Ez zitzaizkion gauzak uste bezala irten. Txotxongiloak, argi beltza eta ondo kontatutako ipuina dira lanaren bereizgarri.

Estos personajillos pequeños que cumplen lo que dicen sus amos, son los protagonistas de este cuento tradicional. Sin embargo, Peru no querrá trabajar y se meterá en problemas. Marionetas, luz negra y un cuento bien narrado son las características de esta obra.

*Sarrerak doan banatuko dira Kultur Etxean bertan, egun berean 16:30ean, edukiera bete arte / Entradas gratuitas el mismo día en el Centro Cultural a partir de las 16:30, hasta completar aforo.*

21

# HAUR ANTZERKIA

***Aita Manuelen ipuinak***

***Ipuin kontaketa eta ilustrazio tailerra***

**OKENDO KULTUR ETXEA –** Haurtxokoa
**18:00 EU**

Aita Manuel eta haren zakur Izpi dira ipuinaren protagonistak, eta hiru istorio desberdin kontatuko dira, betiere bi protagonisten parte-hartzearekin. Horrekin batera, bertaratzen diren haurrek ipuinak irudikatzeko ilustrazio tailerrean parte hartzeko aukera izango dute.

El Padre Manuel y su perro Izpi son los protagonistas de este cuento, que se divide en tres historias en las que ambos son protagonistas. Junto con la narración del cuento, los/as niños que se acerquen podrán participar en el taller de ilustración que se ofrecerá.



**24**

## FILM EMANALDIA

***Paddington 2***

**AIETE KULTUR ETXEA –** Areto Nagusia
**17:00 EU** 104 min

*Gaztelaniazko azpitituluekin / Subtítulos en castellano*

Mundu mailan arrakasta izan duen filmaren jarraipena da, Paddington Brown familiarekin bizi dela. Ehun urte beteko dituen izeba Lucyrentzat liburu berezi bat topatuko du antzinako gauzen denda batean, baina liburua lapurtuko diote, eta Paddington eta Browndarrak lapurra agerian uzteari ekingo diote.

En esta película continuación de la primera entrega, Paddington convive junto a la familia Brown. Debido a la celebración del centenario de la tía Lucy, Paddington encontrará un libro especial en una tienda de antigüedades para regalarlo, pero el libro será robado, y Paddington y la familia Brown intentarán desenmascarar al ladrón.



# IPUINAREN ORDUA
# Giza Eskubideak
## LA HORA DEL CUENTO
## Derechos Humanos

Haurrentzako ipuin kontaketa gure liburutegi sarean giza eskubideen inguruan, Haurren Egun Unibertsala dela eta. 2-5 urte / Euskara

Narración de cuentos en nuestra red de bibliotecas con temas relacionados con los derechos humanos, con motivo del Día Universal de la Infancia. 2-5 años / Euskara



**Azaroak 12 Noviembre**

ERNEST LLUCH KULTUR ETXEA, INTXAURRONDO KULTUR ETXEA, HAUR LIBURUTEGI NAGUSIA
**18:00**

**Azaroak 13 Noviembre**

LOIOLA KULTUR ETXEA
AIETE KULTUR ETXEA
**18:00**

**Azaroak 14 Noviembre**

CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEA
**17:00**

OKENDO KULTUR ETXEA
**18:00**

**Azaroak 15 Noviembre**

LARRATXO KULTUR ETXEA
**17:00**

EGIA KULTUR ETXEA
**18:00**

**Azaroak 16 Noviembre**

LUGARITZ KULTUR ETXEA
**18:00**

## Azaroak 19 Noviembre

ERNEST LLUCH KULTUR ETXEA, INTXAURRONDO KULTUR ETXEA, HAUR LIBURUTEGI NAGUSIA
**18:00**

## Azaroak 20 Noviembre

LOIOLA KULTUR ETXEA
**18:00**

## Azaroak 21 Noviembre

CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEA
**17:00**

OKENDO KULTUR ETXEA
**18:00**

## Azaroak 22 Noviembre

LARRATXO KULTUR ETXEA
**17:00**

EGIA KULTUR ETXEA
**18:00**

## Azaroak 23 Noviembre

LUGARITZ KULTUR ETXEA
**18:00**

Kolaboratzailea / Colabora:
***Udaleko Giza Eskubideen Atala***



**ANTOLATZAILEA** / ORGANIZA

Donostia Kultura

**KOLABORATZAILEAK** / COLABORAN

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol departamentua
Donostiako Udaleko Lankidetza Bulegoa
Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren eta Giza Eskubideen Bulegoa
UPV-EHU
Kutxa Kultur
Euskadiko Filmategia
Euskal Kultur Erakundea
Gipuzkoako Liburu-denden Elkartea

**AHOLKULARITZA** / ASESORÍA

Euskal Idazleen Elkartea

**BESTELAKO ELKARTE ETA ENPRESA KOLABORATZAILEAK** /
OTRAS ENTIDADES Y EMPRESAS COLABORADORAS

Altaïr Magazine
Convent Garden
Elkar argitaletxea
Euskaltzaindia
Euskal Wikilarien Kultura Elkartea
Eusko Jaurlaritza
Galtzagorri Elkartea
Impedimenta
Pasazaite argitaletxea
Susa argitaletxea
Tabakalera

**PARTE-HARTZAILEAK** / PARTICIPAN

Pilar Adón / Katixa Agirre / Uxue Alberdi / Guillermo Altares / Berta Ares / Agustin Arrieta / Bernardo Atxaga / Carmen Bachiller / Maialen Berasategi / Jon Bilbao / Fernando Broncano / Harkaitz Cano / Nacho Carretero / Antonio Casado da Rocha / Tanya de la Cruz / Slavenka Drakulić / Imanol Epelde / Xabier Erkizia / Luisa Etxenike / Isidoro Fernández / Rodrigo Fresán / Iñigo Galzakorta / Javier García Ortega / Paty Godoy / Slawka Grabowska / Jose Kruz Gurrutxaga / Larraitz Idarreta / Peru Iparragirre / Arantxa Iturbe / Ander Izagirre / Barbara Jiménez / Joxemari Karrere / Esti Martínez Díaz de Cerio / Reyes Monforte / Maddi Nazabal / Juan José Millás / Pere Ortín / Leire Palacios / Edurne Portela / Laura Restrepo / Eider Rodríguez / Jesús Ruiz Mantilla / Luca Rullo / Ramon Saizarbitoria / Alicia San Juan / Beñat Sarasola / Danele Sarriugarte / David Trueba / Ekai Txapartegi / Ainhoa Urien / Samara Velte / Manuel Vilas / Iban Zaldua / Anartz Zuazua

Ezagutu itzazu parte-hartzaileak www.literaktum.eus webgunean.
Conoce a los participantes en www.literaktum.eus

LITERAKTUM